

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2018ko ekainaren 12an aurkeztuko du

Artea ikasbide

Babeslea:



Artea ikasbide erakusketa berria Guggenheim Bilbao Museoan

- Datak: 2018ko ekainak 12–irailak 16
 - Lekua: Guggenheim Bilbao Museoko Hezkuntza gunea
 - Babeslea: BBK
- EAEko ikastetxeetako sei eta hamabi urte arteko 140 ikaslek lan originalak sortu dituzte, Museoko Hezkuntza gunean ikusgai daudenak.
 - Hezkuntza programa horretako parte-hartzaileek *Artea eta espazioa*, *Henri Michaux: beste alde eta Esther Ferrer. Elkarri lotutako guneak* erakusketak izan dituzte inspirazio iturri; 1998an martxan jarri zenetik, 3.000 haur baino gehiago igaro dira programa horretatik.
 - *Artea ikasbide* programaren helburua da ikasleei eskola-curriculumeko gaiak ikasteko bideak eskaintzea, jokoaren eta praktika artistikoaren bitartez.

“Ikastaro honetan ekosistema landu dugu; margotu dugu eskuekin, arrabolekin, pintzelekin, brotxekin. Gainera, sortu ditugu collageak, txantiloak, azal-hegalak, pixelak; eta erabili ditugu egunkariak, argazkiak, publizitatea, plastikoa, egurra eta paper tirak. Jarduera hau 10.000 bider egitea gustatuko litzaidake”.
“Robota sortzerakoan gozatu dut gehien tailerretan. Egiten dugun guztia izugarri gustatzen zait, gauzak asmatzen ikasi dudalako, esaterako, robot bat eta mamu bat, bere ezaugarri guztiekin eta istorioarekin”.
Zirrara eta naturaltasun horrekin mintzatu dira Gasteizko Judimendi ikastetxeko eta Trapagarango La Arboleda ikastetxeko ikasle bana, *Artea ikasbide* programatik igaro ostean. Programak 21. edizioa du aurtengoa.

Programaren erakusketa, hasieratik BBKren babesarekin eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin elkarlanean antolatu da, eta ekainaren 12an hasita irailaren 16ra arte erakutsiko da aurtan, Museoko Hezkuntza-gunean.

Iñaki Gracenea, Naia del Castillo, Maider López, Manu Muniategiandikoetxea, Jorge Rubio eta Elsie Ansareo artistek diseinatu eta dinamizatu dituzte tailerrak, Guggenheim Bilbao Museoko hezitzaileekin eta EAEko sei eskoletako irakasleekin elkarlanean; besteak beste, honako sormen-proposamenak sortu dituzte haurrekin: argazkietan jasotako talde-performance dibertigarriak, txantilo edo erreserbekin egindako pintura esperimentalak, 17 azal-kolore desberdinekin osatutako kolore-lagina edo istorio oso berezia duen robot erraldoi bat. Programa honen helburua da haurrek deskubritzea, esperimintatzea, ikusten dutena zalantzan jartzea, muntatutakoa desmuntatzea eta berreraikitzea da, horretarako hainbat bitarteko erabilia: argazkia, pintura, eskultura edo performancea.

“Ikasturte hau esperientzia ahaztezina izan da niretzat eta ikasle hauentzat. Behin eta berriro errepikatu den gaia izan da esparru honetan lan egiten dugunok sentitu dugun artearen ‘deia’ edo agerkundea. Erlijosok bizitza osoa fedeari eskaintzera daramatzan bokazioa jasotzen duten bezala, artistok ere ‘lehenengo aldi’ bat daukagu, norbaitek sortzen duen une berezi bat, loaren monotoniara itzultzeko aukerarik ez dakarren esnatze bat. Programa honek, nire ustez, baldintza horiek guztiak emateko testuingurua bermatzen du”. Hitz horiek adierazten dutenez, Jorge Rubiorentzat pertsonen bizitza eraldatzeko gai den elementua da artea.

Aurtengo *Artea ikasbide* erakusketa bi atal tematikotan banatu da: “Kodeak”, alfabetoekin, seinaleekin eta berrinterpretatutako sinboloekin lotura duena; eta “Guneak”, espazioa okupatzearen eta hura irudikatzeo aukeren inguruko artelanekin.

Sei proiektu artistiko berezi, irudimen eta emozioz beteak

Artea ikasbide osatzen duten 140 “artistak” Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako sei ikastetxetakoak dira.

Eibarreko Amaña ikastetxeko 6. mailako ikasleek, haien sen kritikoa garatzeko helburuarekin, eskuragarri dituzten komunikazio-sistema anitzak esploratu dituzte: ahozko hizkuntza, trafiko seinaleak, kode nautikoa, zeinu-hizkuntza... Manu Muniategiandikoetxea artistaren laguntzaz, inguruari, kartelei, seinaleei eta oso bestelakoak diren kodeei argazkiak atera dizkiete. Horrela, tipologiak identifikatu eta komunikazio kode berriak eta dibertigarriak asmatu dituzte, aurretik existitzen diren elementuak berrantolatuta.

Gasteizko Judimendi ikastetxeko 5. mailako ikasleek ekosistemen eta lurrean dauden bizi-mota anitzen inguruan gogoeta egin dute. Iñaki Gracenea artistaren bultzadaz, talde kulturantzun horrek hainbat habitatu irudikatu ditu, baita bertan bizi diren organismoak ere, pintura eta collagea baliatuta. Mural kolektibo handiak egin dituzte: kolore desberdinak nahasi, eta patroi geometrikoak, forma organikoak eta pixelatutako marrazkiak erabili dituzte. Hala, ikasi dute taldeak berak ere ekosistema txiki bat osatzen duela, inguru fisiko bat partekatzen duen komunitate anitza, non pertsona desberdinak elkar eraginean dauden.

Gasteizko Aranbizkarra ikastetxeko 4. mailako ikasleek alfabeto desberdinetako letra-formen adierazpen-aukerak, armonia, oreka eta ordena analizatu dituzte. Gertuko inguruan grafiti eta sinadurak behatu, eta espazio publikoan modu artistikoan esku-hartzeko aukerez ohartu dira haurrak. Jorge Rubioren gidaritzapean, gertuko objektu eta lekuen argazkiak atera dituzte, eskala eta ikuspuntua aldatu diete, txantiloak egin, eta haien ingurua artearen bitartez eraldatu dute.

Andoaingo Ondarreta ikastetxeko 2. mailako ikasleek inguruarekin eta ikaskideekin harremanetan egoten ikasi dute. Egiaztatu dute haien gorputzak baliatuz espazioak bete ditzaketela elkarlanean, norbanako bakoitza behar duen osotasun baten parte izateraino. Maider Lopez artistarekin Museoa bisitatu dute haurrek, eta Esther Ferrer artistak aulkiekin egindako instalazioak erakarri du haien arreta; inspirazio iturri hori baliatuta, ikasgelaren antolamendua aldatzera jolastu dira: aulki eta mahaiak beste era batera ipini, eta ezusteko espazioak okupatu dituzte, lankidetza eta talde lana oinarritzat hartuta.

Aniztasunaren kontzeptua ezagutzeko helburuarekin, Sestaoko Markonzaga ikastetxeko 2. mailako hurrek mundu osoko artistak haien estudioan lanean ikusi dituzte hainbat bideotan. Naia del Castillok adoretuta, gai horretan sakontzeko, haien kideen erretratuak egin dituzte ikasleek: haien ezaugarri fisikoak behatu, erretratuen fotokopiak egin, horiek txikitu eta zatitxoak nahasi dituzte. Hala, ispilu kartoi mehe baten gainean aurpegi berriak eratu dituzte. Naia del Castillo artistak honela azaldu du taldearekin izandako esperientzia: “Aurten, Sestaoko Markonzaga eskolako bigarren mailako hurrek eta Leire irakasleak, euren gogoarekin eta arretarekin, lan giro ezin hobea sortzeko aukera eman didate, eta ariketak, jolasak eta artista desberdinen obrari buruzko gogoetak uztartu ditugu, besteak beste: Vermeer, Marina Abramovich, Mark Rothko edo Angelica Dass. Horrela, pixkanaka eskolak garatu nahi zuen kontzeptua argitzen joan gara: kultura-aniztasuna”.

Trapagarango La Arboleda ikastetxeko 6. mailakoak mitologia lantzen jardun dira Elssie Ansareo artistarekin batera. Hainbat pertsonaia asmatu, eta denen artean bi hautatu dituzte: mamu bat eta robot bat. Izaki mitologiko horiek nolakoak diren eta haien artean zer nolako harremana ote dagoen imajinatu dute. “Robota eta mamua” deituriko lana osatzeko, instalazio handi bat egin dute hautatutako bi pertsonaiekin.

“Haurrak pozez zorutzen daude, zirraratuta. Gauzak egiteko teknika eta era desberdinak ezagutu dituzte. Orain arte, baliteke eskolan tenpera edo margoen erabileran gehiago murgildu izana, baina, proiektu honetan helburua diseinatzea eta gauza desberdinak nola egin pentsatzea denez, jarduerak errutinatik, plastikatik ateratzen ditu ikasleak. Horregatik, hemen oso pozik ikusi ditugu; ostiralaren zain daude, Elssie iritsiko delako”. Hitz horiek baliatu ditu Ana M^a Vega irakasleak programarekin izandako esperientzia baloratzeko.

Bilbao-New York elkartrukea

Eibarko Amaña eskolako gela bat eta New Yorkeko Bronxeko PS 83 eskolako beste gela bat sei astez egon dira harremanetan mezu elektronikoz bidez, Manu Muniategiandikoetxea eta Jeff Hopkins artisten laguntzarekin. Harreman horretan beren arte-proiektuen inguruko informazioa partekatu dute beren sorkuntzen testu, irudi, marrazki eta argazkien bitartez.

1999az geroztik, *Artea ikasbide* programak, kultura-elkartrukea garatzeko aukera eman die parte hartu duten eskola-ume, artista eta irakasleei, Euskal Autonomia Erkidegoko eta New Yorkeko Lehen Hezkuntzako ikastetxeen artean ematen den arte-hezkuntzaren bitartez. Elkartruke horrek artearen eremua bera gainditzen du, eskola-umeei kezka, gustuak eta jolasak ere partekatzen dituztelako, inguruko errealitateko beste aspektu batzuekin batera. Talde bakoitzak jakin-min bizia sentitu zuen beste taldearen inguruko ezaugarri bereizgarriak ezagutzeko, eta bi hirietako Guggenheim Museoak alderatzeko.

Hogeibat urtez *Artea ikasbide*

Artea ikasbide programak 21 urte bete ditu. Urte horietan zehar, programak lehen mailako irakaskuntzako 3.000 eskola-ume baino gehiago eskola-curriculum indartzen lagundu du arte-jardueren bitartez, eta, aldi

berean, haur horiei munduari begiratzeko sormenezko ikuskera pertsonala transmititu die, talde-lana, beste kultura batzuekiko bizikidetzaren edo ingurunearekiko errespetua bezalako balioak landuz.

1998tik, 3.011 ikaslek, 28 artistak, Lehen Mailako Hezkuntzako hiru hizkuntza-ereduen 220 irakaslek eta Euskal Autonomia Erkidego osoko 145 ikastetxek saiamenez lagundu diete Guggenheim Bilbao Museoko hezitzaileei *Artea ikasbide* programa gauzatzeko.

La hogei bat urte igaro dira egitaraua Guggenheim Bilbao Museoan abian jarri zenetik, eta, oraindik ere, argi geratzen da arteak eskola curriculumara sendotzen laguntzen duela. Heziketa-programa hau New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museoan eratu zen. 1970. urtean, Natalie K. Lieberman mezenasak jarri zuen martxan, hiriko lehen mailako ikastetxe publikoetan arte-irakaskuntza kendu baitzuten.

Museoko entzuteko gideak egitarauaren informazio orokorra eta *Artea ikasbide* erakusketako artelan batzuen azalpenak eskainiko ditu, beste erakusketetan egiten den bezala.

Azaleko irudia

Gasteizko Aranbizkarra eskolako ikasleek egindako lana.

Argibideetarako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio Saila

Tel.: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Guggenheim Bilbao Museori buruzko informazio guztia www.guggenheim-bilbao.eus webgunean eskuragarri (prentsa eremua).

Prensa irudiak:
Artea Ikasbide
 Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza. Oso garrantzitsua da irudien koloreen profila ez aldatzea. Mesedez, erabil ezazu beti jatorrizko profilen kolorea, eraldatu gabe.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 359 008, edo posta elektronikoz bidez, media@guggenheim-bilbao.es

Eibarko AMAÑA ikastetxeko ikasleak.

Irakaslea: Iosune Arratibel

Artista: Manu Muniategiandikoetxea



Gasteizko JUDIMENDI ikastolako ikasleak.

Irakaslea: Jon Etxebeste

Artista: Iñaki Gracenea



Gasteizko ARANBIZKARRA Ikastetxeko ikasleak.

Irakaslea: Iñaki Fernández

Artista: Jorge Rubio



Andoaingo ONDARRETA Ikastetxeko ikasleak.

Irakaslea: Maxux Eceiza.

Artista: Maider López



Sestaoko MARKONZAGA Ikastetxeko ikasleak.

Irakaslea: Leire Pinedo.

Artista: Naia del Castillo



Traparango LA ARBOLEDA Ikastetxeko ikasleak.

Irakasleak: M. Begoña Pasarín ETA Ana M^a Vega Igelmo

Artista: Elsie Ansareo

